

Ondare-ibilbideak Bilboko itsasadarretik: hiri-zubitik zubira (...bi...)

Hiriko espazio historikoen elkarguneak

Isusko Vivas

AURREKO idatz ariketan genioez, Bilboko hiribildua sortu aitzin lehendabiziko barruti eraikiak, us-tez behintzat itsasadar gordinaren alderdi bietan garatuz zihozenak, bata bestearekin harremanean jar-tzeko lotura zain bakarra San Anton deritzon zubia izango zitekeen se-guruenik, ibaian gorako eta behe-ra-ko parajeetan. Hortaz eta batzue-tan, zubia hiri-azarpenaren aurre-kariak baino kasik lehenagoko ze-harbideen ildoan aldarrikatzen da, alegia, itsasaldetik barnealderantz abiatzen zen, kamino-sare primiti-boaren puntu estrategiko gisa.

Nolanahi ere, urteen eta mendeen poderioz batik bat erdi-aroko hiri-egituraketa premuen baitan, gar-rantzia nabaria ez ezik erabilgarri-tasun erabakigarria izango zuen denboran aldaketa mordoia jasan di-tuen pasabide-egiturak. Izan ere, hemeretzigarren mendearen hiru-garren herenean Bilboko hiri-za-balgunez modu serioan jardun ar-teraino, apenas izan da ur-korron-tea iragateko aukera askoz gehia-gorik, garai bateko hiribildu-muina zenaren esparruan bederen.

Bilbo zaharrak eta Zazpi kaleek zeukaten lotura, merkantzien lur-garraiorako ezinbestekoa izateaz gain Bilboko merkataritza pribile-gioen gerizpean gordea geldituko zen aipatu erdi-aroko gizaldietan,

eta horrelaxe iraungo zuen antzina-ko erregimen politiko-administrati-boaren legepean modernitatearen santsuak hodeiertzetik ikuskatu ar-te. Zubiak hiri-sistemaren artefaktu urbanoak baizen juridiko prezia-tuak izatera ere helduko ziren. Pa-sa-beharrizanak gizartearen egune-roko lanetan eta eginkizunetan zi-nez eragiten baitzuen; orduko agin-tea zuten botereek diru-ekimenez, kontrol zorrotzez nahiz metodo ol-darkorrez gogor babesten baitzituz-ten, lurralde bakoitzaren jabego izateraino.

Hiri-espazio esanguratsuenen bihotzak konektatzeko xedez

Alabaina, gerora helduko ziren gizarte-eraldaketa eta nolabaiteko iraultza bortitz edota apalagoek premia berriak errotuko zituzten hiri-espazio eraberrituetan; hortxe agertuko baitzen, era berean, adua-naren kontzeptua, muga fisiko sin-bolikoa eta arkitektura eraikina ere. Zubien eragina diruz hornitua bai-no hiri-zabalguneen txertatzean to-patuko genuke eta hauen lotura-zainen ekidin ezinezko beharrezko-tasunean, eraikitze prozesuak nola edo hala areagotuz.

Bilboko kasuan, dakigunez, XVIII. mende amaiera eta XIX. mende hasierako zabalgunee-idea handi samar eta sasi utopikoek hel-muga zalapartatsuak baizen fruitu-gabeak izan bazituzten, diogun



Arenaleko zubia

XIX. mende gogaikarriaren ia aka-bura itxaron beharko zen, azkeneko hiri-zabalgune erabatekoaren arora bitartean; karlistaldiak bukatu bi-tartean, gerraosteko giro liberal-ga-railaren ilusioetara ailegatu berri-tan. Abandoko lurzoruetara egoki-turik irudikatu zuten planoak beste elkargune batzuk ere halabeharrez-koak zituen, nukleo modernoak be-tiko hirigunearekin erlazio zuzenak izan ditzan. Horrela bada, Isabel II

erreginaren zubiak zeregin oparoa izateaz aparte eraikitze teknologia eta itxura estetiko aldakorrek era-kutsiko zituen unean-unekeo teknika eta gustuen lekukoa hartuz.

Gaur egunera etorri zaigunak eta orain dakusagunak, beraz, Arenale-tik Najara bitartean Zazpi kaleak eta Albiako zabalgunea konektatze-ko bermea eskaintzen du hiru arku-dun estrukturan euskarriz ezein ibilgailu pribaturi, hiriko autobusei,


tranbiari eta aldi berean oinez doa-zenei ibaia iragateko beta emanez. Petir eta Entrecanales-ek Gerra Zi-bilaren ostean, 1940an berreraikita-ko zubiaren tipologia bereziak na-hiz estilo zein funtzioek, balio his-toriko urbanoak eta paisaiari dagoz-kionak baimentzen dizkio, ez baka-rrik pieza solte bezala baizik eta hi-ri-ehundurari itsatsiriko ondare-ele-mentu saihetsezina, ingurumariaren konposizio arkitektonikoan singu-lartasunez eragiten duena, hiriko eskala zein estilo eta erritmo kon-kretuei eutsiz. Baranda-lerroak be-zainbat ertzetako argiztapen zutabe-farolak adibidez, hiriaren sinboloei eta ikur adierazkor zenbaitzuei es-tuki atxikiko lirateke, nortasun ko-lektiboen oroigarri legez ulertuak.

Zubi honek, Areatza eta Arriaga plazatik hasita egungo plaza Biribi-lera garamatza (hemen, arestian aurkezturiko Udaletxe aurreko zu-bira Buenos Aires kaletik irteera le-goke) eta handik abiatuta bide na-gusian gora, Moyuako bihotzerai-no. Lehengotan adierazi legez, Bil-bok bazituen beste zubi xeble ba-tzuk, baten bat higikorra eta besteak beste, erabiliak izateko eskubidea ordainsariak finkatzen zuenik ere bazegoen. Oraingoan komentatu di-tugunen tartean, Erriberako oinez-koen pasabidetik eta La Merced de-lakotik, San Frantzisko auzoari arrera eginez, handik Zabalburuko 'bigarren bihotzera' goaz.

De BILBAO a BILBAO

Tomás Ondarra · Jon Uriarte

Esta fuente fue erigida en honor a **Hurtado de Amézaga, Nicolás de Arriquirar, Cardenal Gardoqui y Eduardo Marquina**. Por eso sus cuatro lados.



Al lado de la fuente se colocaba **Bonifacio López Gómez "Boni"**. Primero vendiendo barquillos con el bombo que heredó de su abuelo. Años después vendiendo patatas fritas que parecían tener más éxito que los barquillos. Junto a su mujer crearon un negocio de patatas fritas en Uribarri. Su secreto era el aceite La Gitana y la patata blanca. Boni, con su caja de mimbre blanco, después de formica y con un plástico blanco vendía las patatas fritas en un cucuruchu de papel de estraza. Siempre vestía chaqueta blanca, su sonrisa, su pelo negro ondulado y un delantal azul con faltriquera para guardar el dinero.

